

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

INGURUMENAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN SAILA

Jarduera sailkatuaren lizentzia eskatzea

Udalari jarduera-lizentzia eskatu diote ondoren adierazten diren pertsonak, azaltzen diren lekuetarako:

Dosier-zenbakia: 2019/LACACT00019

Eskatzailea: B01550060

Jarduera: Automobileren konponketa elektromekaniko eta pneumatikoak egiteko lantegia

Kokalekua: Gamarrako atea, 24 behea 04

Horrenbestez, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Legearen 58. artikuluan xedatutakoaren ildotik, jendaurrean jartzeko epea zabaltzen da, jarduera horiek nola edo hala eragiten dietela uste dutenek horiei buruzko dosierak aztertzerik izan dezaten —Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saileko Administrazio Zerbitzuan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea), jendaurreko orduetan—, eta egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin, hamabost eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo lehenengo lanegunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 21ean

Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren administrazio-burua
EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ